



UDALEKUETAKO BEGIRALEAK - HARTU BEHARREKO INFORMAZIO-NEURRIAK

ARRISKUA 2: Pertsonen ererikoak maila berean	
HAUTEMANDAKO EGOERA	
Ordena eta garbitasuna	
NEURRIA	
Lantokian (bai eraikin barruan bai kanpoan) ordena eta garbitasuna mantendu. Kaxak, objektuak eta ariketak egiteko materialak igarobideetatik baztertu.	
Ezagutzen ez diren eremuak aldez aurretik aztertu, jolasak/ekintzak egiteko soru irristakorrak edo irregularrak ekiditeko. Zola irristagaitza duten oinetakoak erabili.	

ARRISKUA 3: Oinarriaren huts egitezko eroriak edo hondoratzegatiko ererikoak	
HAUTEMANDAKO EGOERA	
Materiala biltegitratzea	
NEURRIA	
Ekintzetarako/Jolasetarako materiala ordenatuta eta ondo pilatuta biltegitratzea. Jarri objektu astunenak beheko apaletan.	

ARRISKUA 4: Objektuen erorikoak manipulatzean



HAUTEMANDAKO EGOERA

Kargak eskuz maneiatzea (jolasak/ekintzak egiteko materiala)

NEURRIA

Ez erabili oina babesten ez duten zapatila solteak (sandaliak), pisu handiko kargak eskuz maneiatzen direnean.

ARRISKUA 7: Higitzen ez diren objektuen aurkako kolpeak



HAUTEMANDAKO EGOERA

Lan eremuan altzairuak, tresnak, etab.

NEURRIA

Landu beharreko jolasak/ekintzak egiteko altzarien edo tresnen artean distantzia nahikoa eta egokia mantendu behar da.

ARRISKUA 22: Trafiko istripuak edo/eta joan-etorrietan



HAUTEMANDAKO EGOERA

In Itínere e In Mision

ARRISKUA 22: Trafiko istripuak edo/eta joan-etorrietan



NEURRIA

Informazio-fitxaren prebentzio neurriak jarraitu.

ARRISKUA 23: Estres Termikoa



HAUTEMANDAKO EGOERA

Beroak eragindako estres termikoa

NEURRIA

Arreta jarri Euskalmeten alertei, programatutako zereginak edo lan-ordutegiak berrantolatzeko.
Likidoak eta gatzak birjartzea. Ur freskoa ematea eta langileak kontzientziaztea maiz edan dezaten, nahiz eta egarri ez izan.
Ahal den neurrian, lana itzalpean egiten saiatzea.
Langileen arteko elkarrekiko zaintza sustatzea.
Saihestu otordu oparoak eta koipetsuak; jan fruta, barazkiak.
Ez edan kafeina eta azukre asko duten edaririk.
Leku fresko, estali edo itzaletan atsedean hartzea.
Hozte-neurri pertsonalak aplikatzea errazten duten sistemak izatea (dutzak, burua edo garondoa bustitzea).
Larruazala eguzki-erradiazioetik babestea. Txapel transpiragarriak, babes-krema eta abar erabiltzea.
Jantzi arinak eta transpiragarriak erabiltzea.

HAUTEMANDAKO EGOERA

Euri-egunak

ARRISKUA 23: Estres Termikoa



NEURRIA

Txubaskeroak edo euritako arropak erabili.
Lehortu ekintzak/jolasak bukatu bezain laster.

ARRISKUA 29: Eragile biologikoekin kontaktuan egotea



HAUTEMANDAKO EGOERA

Arnasbideetatik eta gorputzeko jariakinetatik mikroorganismoekin kontaktua izateko aukera (odola zaurietan, etab.)

NEURRIA

Infekzio-arriskuari eta prebentzio-neurriei buruzko lan-arauak prestatzea, besteak beste, honako hauek:

- Jarraibide higienikoak.
- Gaixo dauden haurrak sendatu arte aldi baterako murrizteko politikak.

HAUTEMANDAKO EGOERA

Txertaketa-protokoloa

NEURRIA

Txerto eraginkorrak dituzten agente biologikoekiko esposizio-arriskua dagoenean, langileen eskura jarri beharko dira, eta txertaketaren abantaila eta eragozpenen berri eman beharko zaie.

Langileari dagokion neurria eskaini eta onartzen duela idatziz jaso beharko da.

ARRISKUA 30: Karga fisikoa



HAUTEMANDAKO EGOERA

Zamak maneiatzea (jolas edo ekintzetako materiala) edo haurrak jasotzea

NEURRIA

Kargak manipulatzean hartu beharreko arriskuen eta prebentzio-neurrien berri eman langileei:

- Hurbildu kargara, baztertu oinak pixka bat beraien artean eta tolestu belaunak.
- Okertu pixka bat bizkarra aurrerantz, bizkarrezurra lerrokatuta mantenduz.
- Jaso karga gorputzetik ahalik eta hurbilen, eta itzuli hasierako posizioa, hankak luzatuz eta bizkarrezurra zuzen mantenduz.

Kargak eskuz erabiltzeko jarrera egokiak hartu. Berotu edozein ariketa egin aurretik.

Edozein jarduerari ekin aurretik luzaketak eta beroketak egin, batez ere ahalegin fisiko handiagoa eskatzen duten zereginetan.

Edozein ariketa eten berehala, mina eragiten badu edo mina larriagotzen bada, eta osasun-arazo horien berri eman dagokion medikuari.

ARRISKUA 35: Ahozko gehiegizko esfortzuak



HAUTEMANDAKO EGOERA

Ahotsaren erabilera distantzia handira jolasak/ekintzak kontrolatzerakoan

NEURRIA

Gomendagarria izan daiteke mikrofonoak eta bozgorailuak erabiltzea, jarduera jakin batzuk egiteko edo gainbegiratzeko.

ARRISKUA 38: Laneko indarkeria



HAUTEMANDAKO EGOERA

Gurasoei arreta

NEURRIA

Gatazkak eta/edo gorabeherak kudeatzeko jarduera-protokoloa ezartzea.

Langileek jarrera adeitsua eta ulergarria erakutsiko dute, komunikatzen dena ulertzen den arte. Mezua errepikatuko da, ulertzeko gai den erara egokituz eta eskuragarria eginez, modu erraz eta zuzenean.

ARRISKUA 39: Beste arrisku batzuk



HAUTEMANDAKO EGOERA

Enpresa-jardueren koordinazioa

NEURRIA

Jarduerak burutzen diren lekuekin koordinatu (ikastetxeak, kiroldegiak, beste enpresen instalazioak, etab.), bertako arriskuetaz informatu ahal izateko eta larrialdi planen informazioa jasotzeko.

HAUTEMANDAKO EGOERA

Formazioa eta Informazioa

NEURRIA

Langileei prestakuntza eta informazioa ematea lanpostuan hartu beharreko arriskuei eta prebentzio-neurriei buruz.